



Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 6

EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN, INTERNETEN BITARTEZ, 11.000 IZAPIDE ETA ZERBITZU BAINO GEHIAGO ESKAINTZEN DITUZTE

- Udalek eskaintzen dituzte zerbitzu eta izapide gehien (% 44,1) ondoren Eusko Jaurlaritzak (% 21,9) eta foru aldundiek (% 15,3).
- Izapide elektronikoen % 37,8 baimenei eta erregistroko kudeaketei dagozkie; pisuari erreparatuz, ondoren, laguntza eta diru-laguntzak (% 20,5) eta tasa eta zergak (% 12,5) datoz.
- Euskadiko herri-erakundeek 922 atari desberdinak erabiltzen dituzte, % 21,2 Eusko Jaurlaritzakoak dira.


Eusko Jaurlaritzak, 2013ko datuen arabera, Zerbitzu Publiko Aurreratuen ZERPA2013 berri du. Euskadiko herri-administrazioen leihatila bakar elektronikoa abian jarri ahal izateko ezinbesteko tresna da. Datu-base hau doakoa da eta herritarrek, enpresek eta sektore publikoak berak erabiltzeko moduan dago.

ZERPA2013-k Administrazio guztiek eta haien enpresa-sektoreak 2010ean eta 2013an Internet bidez eskaini zituzten 11.220 zerbitzuak eta izapideak barne hartzen ditu. Atari eta zerbitzuen deskribapenak eta haietarako sarbideak agertzen dira bertan, moten eta funtzio-arloen arabera sailkatuta.

ZERPA2013

Direktorioak biltzen dituen unitateen erdiak baino pixka bat gehiago administrazioko prozedurei eta izapideei dagozkie (% 56,7), laurden bat edukiei (% 24,1) eta % 10,8 zerbitzuei. Gainerakoak honela banatzen dira: % 4,3 arautu gabeko ikastaroei dagozkie (487), % 2,9 kontratatzaile profilen atalei eta % 1,2 sari, sariketa eta lehiaketei.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta erakunde publikoek Interneten eskaintzen dituzten zerbitzu, prozedura eta izapideak erakunde-motaren arabera. Aaldia 2010-2013. %



Iturria: ZERPA2013. Herri Administrazio eta Justizia Saila. Eusko Jaurlaritza

Euskadiko Autonomia Erkidegoko 251 udaletatik % 99k Interneteko ataria daukate eta zerbitzu eta izapide guztien % 44,1 eskaintzen dute. Eusko Jaurlaritzak, 213 ataritan, eskaintza elektronikoaren bosten bat du (% 21,9); aldundiek, berriz, % 15,3, 37 ataritan banatuta. Elkarte publikoek 180 webgune daukate eta haien bitartez % 6,8 eskaintzen dute. Ondoren, EHU (42 atari eta eskaintza osoaren % 5,7) eta erakunde autonomoak (% 4,7, 50 webguneren bitartez) daude.

Prozedurak eta izapideak bakarrik aztertzen baldin baditugu, erakunde publikoek 2010 eta 2013 artean eskaini zituzten 7.229etatik heren bat baino gehiago baimenei, erregistroko izapideei eta karnetei dagozkie (% 37,8). Ondoren, pisuari dagokionez, laguntza eta diru-laguntzak (% 21,5), zergak eta tasak (% 13) eta, azkenik, zerbitzuak eskatzeko izapideak (% 11,7) daude. Mota horretako prozedurak, direktorioan aurkeztutakoaren artean, bostetik lau baino gehiago dira, eta herri-administrazioek ongizate estatuan egiten dituzten jarduerak laburbiltzen dituzte: eskubideak eta betebeharrak bermatzea, dirua biltzea, aberastasuna birbanatzea eta zerbitzuak ematea.

Eusko Jaurlaritza da (Internet bidezko 1.153 prozedura eta izapide) Internet bidezko eskaintza handiena daukaten erakunde publikoen zerrendako buru; bigarrena, berriz, Bizkaiko Foru Aldundia (447) eta, hirugarrena, Arabakoa (360). Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) laugarren tokian dago (346). Lehenengo udala, Irun, seigarren tokian dago (236) eta, hurrengoa Bilbo da (232 unitate). Lehenengo hamar erakundearen artean, Gipuzkoako beste bi udalerrri ere badaude: Arrasate (206) eta Elgoibar (144).

Interneten bidez eskaintako prozedura eta izapideen kopuru handiena duten 10 erakunde publikoen rankinga. Euskal A. E. Aldia 2010-2013

1	Eusko Jaurlaritza	1.153
2	Bizkaiko Foru Aldundia	447
3	Arabako Foru Aldundia	360
4	Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)	346
5	Gipuzkoako Foru Aldundia	318
6	Irungo Udala	236
7	Bilboko Udala	232
8	Arrasateko Udala	206
9	Vitoria-Gasteizko Udala	176
10	Elgoibarko Udala	144

Iturria: ZERPA2013. Herri Administrazio eta Justizia Saila. Eusko Jaurlaritza

Administrazioek, enpresa publikoek eta Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) 922 atari desberdinen bitartez bideratzen dute zerbitzu eta izapide horien eskaintza. Horien heren bat baino pixka bat gutxiago (% 29,7), Gipuzkoako erakunde publikoenak dira, % 24,1 Bizkaikoenak eta % 8,9 Arabakoenak; gainerako % 37,2 autonomia erkidego osoan jarduten dutenenak.

Udalak dira webgune gehien kudeatzen dituztenak: % 39,3. Ondoren, Eusko Jaurlaritza (% 21,2). Apur bat atzerago, elkarte publikoak (% 17,8) eta erakunde autonomoak (% 5) daude. Haien atzetik datozen foru aldundi, unibertsitate publiko eta fundazio publikoei % 4 inguru dagokie. Gainerako % 4a mankomunitateei, partzuergoei, koadrilei eta bestelako entitate txikiei dagokie.

OHAR METODOLOGIKOA

Estatuko Administrazio Orokorreko entitate publikoak eta Euskadiko Autonomia Erkidegoan egoitza daukaten administrazio horren mendeko sektore publikoko enpresak ez dira barne hartu, ezta unibertsitatez kanpoko ikastetxeen izapide eta prozedurak ere.

Vitoria-Gasteiz, 6 de enero de 2015

LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS VASCAS OFERTAN YA MÁS DE 11.000 SERVICIOS Y TRÁMITES A TRAVÉS DE INTERNET


- Los ayuntamientos encabezan la oferta de servicios y trámites con el 44,1%, seguidos del Gobierno Vasco con el 21,9% y las diputaciones forales con el 15,3%.
- Un 37,8% de los trámites electrónicos corresponden a autorizaciones y gestiones registrales, siguiendo en peso las ayudas y subvenciones con un 20,5% y tasas e impuestos con un 12,5%.
- Las entidades públicas vascas utilizan 922 portales diferentes, correspondiendo el 21,2% al Gobierno vasco.

El Gobierno Vasco ha actualizado, con los datos de 2013, el directorio de Servicios Públicos Avanzados, ZERPA. Se trata de una herramienta fundamental para alcanzar la ventanilla única electrónica de las administraciones públicas vascas. Esta base de datos, es gratuita y se encuentra a disposición de la ciudadanía, las empresas y el sector público vasco.

ZERPA2013 recoge ya 11.220 servicios y trámites ofertados entre 2010 y 2013 por el conjunto de las administraciones y su sector empresarial a través de Internet. Contiene descripciones y enlaces a portales y servicios, clasificados por tipos y áreas funcionales.

ZERPA2013

Algo más de la mitad de las unidades que recoge el directorio corresponde a procedimientos y trámites administrativos (56,7%), una cuarta parte a contenidos (24,1%) y un 10,8% a servicios. El resto se distribuye entre un 4,3% de cursos de enseñanza no reglada (487), un 2,9% de apartados de perfil de contratante y un 1,2% de premios, certámenes y concursos.



Fuente: ZERPA2013. Departamento de Administración Pública y Justicia. Gobierno Vasco

Los 251 ayuntamientos de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de los que el 99% dispone de un portal en Internet, ofertan el 44,1% del total de servicios y trámites. El Gobierno Vasco, con sus 213 portales, dispone de un quinto de la oferta electrónica (21,9%), alcanzando el 15,3% las diputaciones a través de sus 37 portales. Las sociedades públicas, con 180 sitios web, ofertan el 6,8%, seguido de la UPV con el 5,7% (42 portales) y los organismos autónomos con el 4,7%, mediante sus 50 webs.

Si el análisis se centra sólo en procedimientos y trámites, de los 7.229 que ofertan las entidades públicas entre 2010 y 2013, más de un tercio corresponde a autorizaciones, trámites registrales y carnets (37,8%), siguiéndole en peso las ayudas y subvenciones (21,5%), impuestos y tasas (13%) y por los trámites para solicitar servicios (11,7%). Este tipo de procedimientos, que agrupan a más de cuatro de cada cinco de los presentados en el directorio, resumen las actuaciones de las administraciones públicas en un estado del bienestar: garantizar derechos y obligaciones, recaudar, redistribuir la riqueza y prestar servicios.

El Gobierno Vasco, con 1.153 procedimientos y trámites por Internet encabeza el ranking de entidades públicas con mayor oferta, ocupando el 2º lugar la Diputación Foral de Bizkaia con 447 y el 3º la de Álava (360). La Universidad del País Vasco (UPV) ocupa el 4º puesto con 346. El primer ayuntamiento, Irun, ocupa el 6º puesto (236) seguido muy de cerca del de Bilbao con 232 unidades. Entre las diez primeras entidades también se incluyen otros dos municipios guipuzcoanos: Mondragón (206) y Elgoibar (144).

Ranking de las 10 entidades públicas con mayor número de procedimientos y trámites ofertados por Internet. C.A. de Euskadi. Período 2010-2013

1	Gobierno Vasco	1.153
2	Diputación Foral de Bizkaia	447
3	Diputación Foral de Álava	360
4	Universidad del País Vasco (UPV)	346
5	Diputación Foral de Gipuzkoa	318
6	Ayuntamiento de Irun	236
7	Ayuntamiento de Bilbao	232
8	Ayuntamiento de Arrasate/Mondragón	206
9	Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz	176
10	Ayuntamiento de Elgoibar	144

Fuente: ZERPA2013. Departamento de Administración Pública y Justicia. Gobierno Vasco

Administraciones, empresas públicas y la Universidad del País Vasco (UPV), canalizan la oferta de estos servicios y trámites a través de 922 portales diferentes, dependiendo algo menos de un tercio (29,7%) de entidades públicas de Gipuzkoa, un 24,1% de Bizkaia, un 8,9% de Álava y el restante 37,2%, de las que tienen su ámbito de actuación en toda la comunidad autónoma.

Los ayuntamientos son las entidades que más sitios web gestionan: el 39,3%, seguidos del Gobierno Vasco con un 21,2% y las sociedades públicas con un 17,8%. A más distancia, los organismos autónomos (5 %) y las fundaciones públicas, universidad pública y diputaciones con en torno al 4 % cada uno de ellos. El resto, aproximadamente un 4%, corresponde a mancomunidades, consorcios, cuadrillas y otros entes menores.

NOTA METODOLÓGICA

No se han incluido los entes públicos de la Administración General del Estado y su sector público empresarial con sede en la C. A. de Euskadi ni los procedimientos y trámites de los centros escolares públicos no universitarios.